

JULIAN GOGOAN

Mikel Ugalde

Ya sabemos, Julián, que nunca has sido amigo de alabanzas ni homenajes. Nunca buscabas el aplauso ni el agradecimiento por lo mucho y bueno que nos has aportado a lo largo de tu vida. La familia, el amor, el humor, la alegría, la solidaridad, la sencillez, la justicia, la verdad, el servicio, el pueblo, el compromiso, la celebración, la fe, el espíritu, la esperanza... son palabras que se convertían en vida enriquecedora para quienes tuvimos la suerte de compartir contigo tan gratas experiencias. Gracias por todo, Julián.

Escribimos estas líneas convencidos de que con tu palabra y el ejemplo nos has abierto una senda para recorrer un camino al servicio de quienes más sufren, peor lo pasan, y viven inmersos atrapados por la triste soledad. Nos has enseñado la manera de vivir, desde la lealtad, el seguimiento a ese Jesús en el que confiabas plenamente. Gracias por todo el bien que nos haces.

Lehenago esan bezala, ez dugu Julian, gorai-pemenetan eta laudorioetan jarduteko asmorik. Ez zen zure estiloa. Bide arruntari ekin zenion nondik norantz ibili gaitezkeen erakusteko. Bidegile izan zaitugu eta ibilbide horren hainbat mugarri aipatu nahi ditugu gogoratzeak on egingo digulakoan.

Gizartean murgildua. Familiatik hasi eta gizartean barrena, harreman handikoa izan zaitugu, era askotako jendearekin biltzen zinen; irekia izanik, iritzi ezberdinak aintzat hartzen zenituen, maite zenituen herriko jaiak, ospakizunak, lagunarteko topaldiak. Aitzakiarik txikiena nahikoa zenuen jendea mahai baten inguruan biltzeko, kontu-kontari, kantu-kantari, aritzeko. Kaldereroetan sarritan ikusi izan zaitugu zartaginak astintzen. Alaia zinen, bakezalea bai, baina baita justiziaren aldeko eragile ere.

Herrigintza gogoan. Demokraziaren eta garrantasunaren maitale, gizarteak pairatzen dituen bidegabekerien aurka azalduko zinen. Giza eskubideak defendatzeko asmoz, lan munduan eragile eta sindikalista izan zintugun lankideen ordezkari gisa. Euskal Herriarentzat askatasuna, bakea, tolerantzia eta zuzentasuna zenituen gogoko.

Antzezle Langagorrin. Fatimako parrokiaren babespean sortu eta sendotu zen antzerki taldea da Langagorri. Umorez blaitu izan ditu bere emanaldiak ikus-entzuleen gozamenerako. Oso arrakastatsuak izan dira udaberriaren atarian urtero aurkeztutako antzezlanak. Esan gabe doa Julianek bereganatutako pertsonaiak umoretsuak zirela, umorearen balioa aldarrikatzen zuen eguneroko bizitzarako eta maitea zuen ikusleen poza, irribarrea eta gozamena.



📷 Jesús Formentín.

Eguneroko jardunean ongi bizitzen eta bizi-
razten saiatzen zinen. Gizon nahiz andere alar-
gunduak, drogaren sarean kateatutako familiak,
kartzelatutako seme-alaben gurasoak... oso aintzat
hartzen zenituen. Esperantzaren leihoa zabaltzen
zenien. Hurbiltasuna, konpromisoa, alaitasuna,
bihotza... zenituen sufrimendua arintzearen erabi-
litako osagaiak.

Detalle alorrean aparta zinen. San Valentin
egunez, esaterako, ez zenuen Mila emaztea detai-
leren bat maitasunez eman gabe utziko. Hainbat
lagunen urtemugan ez zenuen arrosaren bat gabe,
edota telefono dei bat egin gabe utziko. Zure
mugikorrak ez zuen zenbaitetan lasaitasun handirik
izango.

Kristau konprometitua. Ezaguna da Fatimako
Andre Mariaren parrokian hainbat eta hainbat
urtetan egin duzun lana. Bertako kontseiluko
kide izan zara, zure iritziak eta jarrera, inoiz desa-
dostasunean ere, eraikitzailea izan dira, liturgiari
bultzada eman izan diozu, elizkizun alaiak egu-
neratzen eta bideratzen saiatu zara zerbitzari leial
gisa. Zure lan umotuena eta eraginkorra ezba-
rik gabe, Julian, sufrimenduaren gurutzepean zeude-
nen bila irten, beraiekin harremanetan jarri, talde
batean bildu, oinazeak arindu eta beraien bidela-
gun bihurtzea izan da. Eguneke zentruan biltzen
zirenek ere oso maite zintuzten.

Heriotzari begira. Iñaki Peña sendagileak
doluari buruzko dokumental interesgarria ekoitzi
berria du. Heriotzaren segada hurbiletik bizi izan
dutenen aitorpenak eta esperientziak biltzen ditu
Aulki hutsak izeneko lan honetan. Euskal lurral-
dean zehar jasotako testigantzak ipintzen ditu
ikuslearen aurrean. Horietako batzuek, Julian
Etxeberriarenak ere tartean, Erreterian bilduak
dira. Hunkigarriak dira lan honetan haren azal-
penak. Ez zion heriotzari beldurrik, bizitzarekin
bat egina ikusten zuen heriotza. "Umore klabe-
an hiltzea gustatuko litzaidake", dio Julianek.

Bere hilobian zer nolako epitafioa jartzea
gustatuko litzaiokeen galdetzen diotenean "Gizon
on bat izaten ahalegindu den pertsona izan naiz",
gaineratuko zuen.

Gogoeta eta aitorpen hauek azaldu eta gero,
ezustean joan zaigu Julian azken irailaren 11n.
Jainko misterioaren baitatik lagundu gaitzazu zuk
erakutsitako bidea jarraitzen, zuk eginikoa eskertzen.



📷 Jesús Formentín.